

Euskaltzaindia: “Etxeberri Egitasmoa (EHS)” Euskararen historia sozialerako proiektua

JOSEBA INTXAUSTI, MIKEL ZALBIDE eta NIKOLAS GARDNER

Euskaltzaindia

Eskuartearen dugun eta abiarazten ari garen “Etxeberri Egitasmoa” aurkezteko eskatu digute Biltzar honetako antolatzaileek¹. Zeregin honetan gabiltzanonez izenean eskerrak eman behar dizkiet arduradunei aukera hau eskaini digutelako. Mahaian gauden hiru lagunon artean aurkeztuko dizuegu Proiektuaren asmoa bere orokorrean ez ezik azken urte eta erdian egin ditugun lan funtsezkoenak ere aipatuz.

Lehenik, neure egitekoa izango da Euskararen Historia Sozialerako abian den egitasmoa bere lerro nagusietan aurkeztea; ondoren, Mikel Zalbide euskaltzain eta Egitasmoko aholkulariak emango digu Metodologia-Ereduaren berri, hain zuzen Egitasmoan sortu nahi diren materialen Ereduarena (oraingoz probatan duguna); Zalbide jauna izan da hautatutako bidea proposatu diguna, eta berarekin dihardugu besteok, Eredua osatu eta hobetzen. Eredu horrek edukien gardentasun soziolinguistikoa, fidagarritasun historikoa eta iker-erabilgarritasuna segurtatu nahi ditu; ildo beretik, Nikolas Gardner gure teknikaria arduratu da eredu horri euskarri egokia emateaz. Gardner jaunak emango digu berorren berri.

Eta natorren nira.

1. *Etxeberri Egitasmoaren xede eta ezaugarriak*

1.1. *Zer eta zertarako da Euskaltzaindiaren “Etxeberri Egitasmoa”*

Etxalarko barne-biltzarrean, 2007ko apirilaren 21ean eman zuen ontzat Euskaltzaindiak Egitasmo hau, berehalako bi urteetan abiarazi zedin eta or-

¹ Sarako Joanes Etxeberri (1668-1749) euskal idazlearen oroimenez eman diogu izen hau Egitasmoari (ik. *Euskerak*. 52, 2007-1, 240).

duan onartutako lanak buru genitzan. Harez gero horretan dihardugu Mikel Zalbide, N. Gardner eta hirurok. Aurrerago esango dut Egitasmoak udazken honetatik aurrera zein lan-antolamendu izango duen.

Proiektuaren nondik norakoak eta zertzeladak (hasiera hartan zehatz zitezkeen neurrian, noski) Egitasmo-aurreko txostenean azalduta daude, eta Akademiaren *Euskera* aldizkarian daude argitara emanda². Ez naiz han esandakoak errepikatzen hasiko, baina esandakoa gogoan dudala eta hangoa osatuz, gaurko goeratik hitz egingo dut.

Euskaltzaindiaren lanetan beti egon da bizirik euskararen iragan soziala ezagutzeko grina, eta hainbat euskaltzainen idazlanek ongi erakusten dute hori. Ez da falta izan, gainera, *Euskararen liburu zuria* bezalakorik, hats handiagoko ahalegin instituzionalen bat edo beste. Hori horrela, hala ere hizkuntzaren gizarteko bizitzaz ez da egon iker-plangintza orokor eta jarraiturik. Hutsune horixe da, bada, oraingo honek bete nahiko lukeena.

Egitasmoak Euskaltzaindian eta, neurri batean, Euskal Herrian ere, ahaztuegia izan den iker-lerro bati bidea samurtu nahi dio. Zorionez, arrunki ezagutzen dena baino gehiago da iker-eremu horretan lehendik egindakoa, eta berorren berri ematea izango da Egitasmoaren eginkizunetako bat; baina, euskararen historia sozialari gure ikertzaileek eskaini dizkioten ikerlanen ondoan, badago gaur egun hizkuntzekiko zientzietan berritasunik franko, EHSerako baliagarri izan behar duenik.

Azkeneko hogeita hamar urteetan Euskaltzaindiak berak sustatu dituen lan handiak daude, batez ere hizkuntzaren barne-baliabideak (*corpus*-a deitzen dugun hori) ikertu eta hizkuntzaren tradizioa ezagutarazi eta araubide finkatuago bat proposatzeko baliozkoak izan direnak. Hor daude, adibidez, Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) eta argitaratzear dagoen Atlas linguistikoa. Hiztegi eta gramatikatan premia larrienak estaltzeko lan franko egin du, bada, Euskaltzaindiak, eta hori guretzat ere baliagarria da.

Bestalde, erbestetik ikasi eta gurean lur ona aurkitzen ari diren hizkuntzaren beste zientzia teoriko eta aplikatuak daude: soziolinguistika, psikolinguistika, glotodidaktika, etab. Hizkuntzen historia soziala lehen urratsak ematen modu egitarautuagoan hasi zenetik (gogora gurean ere 1970. eta 1980. urteetako ahalegin haiek), historialariok soziolinguistikarekin egin genuen topo: metodo eta kon-

² Intxausti Rekondo, J. (2007). "Joanes Etxeberri Egitasmoa (2007-2008). Euskararen Historia Sozialerako Proiektua. EHS" in: *Euskera*. 52, 2007-1, 239-267.

tzeptu berriekin zetorren, egunean eguneko hizkuntza-egoera sozialak aztertzera, eta noizbehinka baita iraganeko egoera aztergarriak iradokitzen ere.

Laster ikusi zen zein mundu zabal eta interesgarria irekitzen zигun Soziolinguistikak historialariorioi: historia soziolinguistiko edo soziala esparru zabaleko mundua zen, neurri handi batean birjina ageri zena, historiografiak gutxitxo begiratua, diziplina ezberdinetatik ekarpenak bilduz osatu beharko zena, historia sozial eta instituzionalek, ekonomiko eta kulturek, ideologiko eta erlijiosoen, politiko eta juridikoen, denek batera, argitu beharko zutena. Azkeneko hamarkadak erakutsi du zenbatekoa zen iker-eremu horren beharra, soziolinguisten ikerlanetatik eta jada historialariak (eta hizkuntzalariak ere) tartean direla.

Gure *Euskararen liburu zuria* 30 urte betetzera doan honetan (1978-2008), erbestetik ere orduko asmoei segida emateko laguntza berriak ditugu orain nazioarteko komunitate akademikoan. Zer da, ordea, EHS hau, eta zer Etxeberri Egitasmoak aztertu nahi duena?

Gure hizkuntzaren historia sozialak euskararen (eta egokia den bakoitzean ondoko hizkuntzen) gizarteko bizitza aztertu eta ezagutzera eman nahi du, hizkuntzaren gizartekotasun horren alde historikoa ikergai duela: besterik ez, baina hori zabaltasun osoan, erabilera mintzatu eta idatzi guztiak aintzakotzat hartzen dituela hizkuntzaren lurralde osoan, hemen eta kanpoan, aro eta garai ezberdinetan, funtzio eta maila ezberdinetan, barruko eta kanpoko hizkuntzarteko ukipen-harremanetan.

Proposamen-txostenean, Soziolinguistika edo Hizkuntzen Soziologia mugatzeko Fishman-en hitzekin esaten zena errepika daiteke hemen, betiere definizioari gure iker-esparruko denbora historikoaren dimentsioa ere gehitzen diogula:

Hizkuntzaren —hizkuntza mintzatu, hizkuntza idatzi eta inprimatuaren— ohizko erabiltzaile bezala gizakia gainerako mintzatzailerekin jokabide-arau partekatuek loturik dago beti. Hizketaren soziologiak giza portaeraren bi alde hauen arteko intereragina aztertzen du: hizkuntzaren erabilpena eta burubide sozialaren antolakuntza. Laburki esanda, hizketaren soziologia burubide linguistikoaren antolara sozialarekin zerikusia duten gaien alde guztiez arduratzen da, eta ez bakarrik berezko (*per se*) erabilpen linguistikoaz, baizik eta era berean hizkuntzarekiko eta hiztunekiko berariazko jarrerak eta jokaerak ere ikertuz.

Hizkuntza eta hiztunen egoera/erabilera, gaitasuna eta *corpus* “historiko-soziala”, alde batetik, eta horiek guztiekiko iritzi, jarrera eta jokabideak —denak ere beren izaera eta aldakortasun sozialean begiraturata— ikertzea izanen da

Egitasmo honen zeregina. Azken finean, euskararen gizarteko bizitza historikoa ezagutu eta ezagutzera ematea, alegia.

Lan horrek diziplinartekotasun nabaria eta zaindua eskatuko du: adibidez, Hizkuntzalaritzari ere galdetu beharko diogu zer dakien iragan sozial horretaz (gogora dialektologiako lanak, Atlas linguistikoak egingo dizkigun ekarpenak, onomastika eta toponomastika historikoen esan dezaketena, hizkuntzen arteko ukipen-historia, etab.). Halatsu, bestelako Hizkuntza-zientziei ere entzun beharko diegu: Geolinguistika, Demolinguistika, Zuzenbidea, Etnografia eta abar.

Jada bereziki gogoan ditugu begiratu beharreko lehenengo alor batzuk. Adibidez, maila ezberdinetako euskal Erakundeetan ageri diren jarrera, arau eta jokabideak ikusi behar dira; hizkuntzaren bizitza soziala arautu edo baztertzeko emandako Legeak zeintzuk izan diren jakin; kristau Elizek izan dituzten politika linguistikoak argitan jarri, Eliza Katolikoarenak bezala Eliza Erreformatu protestanteenak ere; hizkuntzen inguruko mentalitate eta pentsa-moldeak beti egon dira hiztunen gizartean, eta gurean herritar arrunten baitan ez ezik apologistika idatziarekin ere. Eta beste adibideren bat gehitzeko, esan beharrik ez dago, hizkuntzarenak nolako presentzia/ausentzia izan duen Hezkuntzan eta Irakaskuntzan, alfabetatzeak hasi eta goi-ikasketetaraino. Eta musikaren edo bertsolaritzaren munduan izango da zer jaso aipatutako jarrera eta jokabideak ezagutzeko.

Hainbat iturritan entresaka arretatsu bat egin beharra dago, sarritan zaila eta oso zaila ere izango dena, izan ere bidebatezko albisteak izango baitira, edozein hizkuntzatan datozkigunak, gutxien espero genuen xokoetan agertuko zaizkigunak. Iker-lanaren ekonomia begiratu beharra izango dugu, eta bilaketa-lehentasunak metodo onez eraman aurrera, luzeegi ibiliz bide motzegia egin ez dezagun.

Artxibo eta bibliografietan ditugu bila-lekuak, eta, modu emankorrean eskueran izan ditzaun, ikertzaileentzako gidaliburuak sortzea izango da Egitas-moko lehen urratsetako bat. Batetik, bilaketa horretan euskal adituak lankidetzaz egitasmoratu nahi dugu, eta bestetik, ikertzaile gazteei erraztasun hobekak eskaini gura dizkiegu, denon artean albiste-aitxor aberats eta erabilgarria eratzeko.

Horregatik, Euskaltzaindiak proiektu estrategiko bezala ikusten du Etxeberri Egitasmoa, epe ertain eta luzekoa izan daitekeena, Akademia barneko indarrekin eta euskal historialari eta soziolinguistekin (eta ez horiekin bakarrik) pausuz pausu aitzina eraman beharko dena.

Itxuraz, logika historiko guztien kontra biziraun du euskarak, baina era berean gutxienez Aro Modernotik hona bere lurraldea murriztuz joan zaio, eta zailtasunak izan ditu funtzio sozial berriak bereganatzeko. Zer gertatu da mi-

laka urteko ibilera historiko horretan? Galdera horri erantzuteko albiste argigarriak bildu nahi ditu Etxeberri Egitasmoak.

Horretarako Euskal Herriko eta inguruko hizkuntzen iragan konplexua, euskarari ere dagozkionetan bederen, osorik besarkatu nahi du proiektu honek. Ez da hori erraza izango, mundu idatzian hain isildua izan den gure kasu honetan, baina premiazkoa ikusten dugu, latina eta erromantzeak gogoan izatea, oro har, Biltzar honetan egiten den bezala. Euskal lurraldeko hizkuntzen ukipen-leku, aldi eta gizarte-guneak aztertzea, ez da alfer-lana izango guretzat.

Jarduera horrek guztiak izan dezakeen konplexutasunagatik, baliabide teknologikoak erabiltzea ezinbestekoa da. Alde batetik, teknologia berriak erabiliz garatuko diren datu-baseak izango ditugu: oraingoz, agiri-testuena da bat eta bibliografikoa bestea. Horrela, ikerkuntzarako langai testualak eta lanabes bibliografikoak eskuratzeko erraztasun berriak sortuko ditugu. Etxeberri Egitasmoko zutabeak izango dira horiek.

Lantegi honek guztiak ezingo du ahaztu esparru honetan diharduen be-lau heldua: ikertzaile horietan dago bilduta orain arte dakiguna, eta berak dira lehen giza abiapuntua. Euskararen Historia Sozialeko ikertzaileen arteko lankidetzeta eta elkarrizketa sustatzea beharrezkoa izango da Egitasmo honetan. Egitasmoa irekita egongo da bere baliabideak ikertzaileei eskaintzeko, eta beroriek modu arautu eta publiko batez arduratuen eskueran jartzeko.

Guztiak aurrera egin dezan, banakako ikertzaileena ez ezik iker-taldeen eta Erakundeek ekarpena ere eskatu nahi du Euskaltzaindiak Etxeberri Egitasmo honetarako. Euskal Herri osoko eta erbesteko jakitunen idazlanak gisa arautu baten barruan eskatuko dira, EHSeko eremu honetan onenek behintzat erosotasun sustagarri bat izan dezaten.

1.2. Nola lan egingo du Egitasmoak?

Egitasmoak Euskaltzaindiaren barruko lantalde berezitu bat izango du, oraingoz *Bulegoa* deitzen diogun lantegian ariko dena, datozen bi urteetan-edo Donostian egongo dena. Egunero eta ordutegi jakin batekin egingo da lan bertan, orain-oraingoz Bulegoak batez ere datu-baseei emango die lehentasun nabaria.

Bulego honek Bulego-burua, kodetze-burua (*kodetzaila*), informatikaria eta hiru markatzaile izango ditu langile finko eta kontratatu bezala. Bulegoak egin edo gidatuko dituen bertako eta kanpoko lanen azken-aurreko ardura Egitasmoaren Zuzendariak izango du eta berorrek batera Aholkulariak bere

mailan. "Azken-aurrekoa", diot, zeren Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren eta Egitasmoko arduradunen artean bitariko jarraipen-taldea eratuko baita, betiere Euskaltzaindia Egitasmoko jardueraz jakinaren gain egon dadin, eta behar delarik erabakiak har ditzan. Oro har, Egitasmoak eta berorren Bulegoak Euskaltzaindiko egitura orokorraren barnean lan egingo dute.

Euskal Herrian bertan eta inguruetan ditugun baliabide dokumental eta bibliografikoak identifikatu eta lekuan lekukoen berriak jasoko ditu Egitasmoak. Agiritegi eta liburutegiak izango dira gure laneko harrobi: herrialde historikoetako artxibategiak (gogora *Irargi*-k guztion mesedetan egin digun lana), gure liburutegirik onenak (adibidez, eredugarria dugu HABEkoa gure esparru honetan). Hor dago, orobat, Donostiako *Doctor Camino* liburutegia, bertako (eta inguruko) hizkuntza-historiaz, eta horren gertaera-kideez, jabetzeko aparteko iturburu. Unibertsitateetako liburutegiek, edo zenbait Fundaziok eta bestelako hainbat erakundek, eskain ditzaketen albiste-bildumak ere ez dira utziko alhora; esaterako, Aldundietako Liburutegiek (J. Urkixo-rena bereziki aipatzekoa izango litzateke), *Sancho el Sabio*-ren liburutegi eta digitalizazioak, Azkue Bibliotekako altxorak, edo *Armiarma* eta beste hainbat lan aurreratutako baliozkoak izan beharko lukete Egitasmo honetarako, betiere egiteke dugun Euskararen Historia Soziala onduz joateko. Bilaketa berriak egiteaz gain, Egitasmoak honelako lankide-ekarpenak adostu, hitzartu eta bildu beharko ditu.

Euskaltzaindiko ikertzaileen zerbitzuan jardungo du Egitasmoak lehenik, eta lehen heldutasun-puntura iritsi orduko, kanpoko ikertzaileetara ere irekiko ditu eskuetan dituen iker-albistegiak, batzuetan argitalpen inprimatu bidez eta, bestetan, Internet eta teknologia berriez baliaturik.

Izan ere, Egitasmoko lanabes arrunta izan beharko dute teknologia horiek, eta hasieratik bertatik Egitasmoan egon da Euskaltzaindiko IKTez baliatuz jardutea. (= Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia)³. Eta horretarako funtsezko bi arrazoi, behintzat, izan ditugu: teknologia horiek ezinbestekoak dira gure datu-baseen garapena ahalbidetzeko, eta bigarren urrats batean pentsa ezina da teknologia horiek gabe jardun nahi izatea. Euskal gizartean, noski, eta nazioartean, hedapen-sistema berrien aukera ezingo dugu galdu. Honetan, izan ditzakegun eskaintza eta egingo zaizkigun eskeetara moldatu beharko dugu Egitasmoa.

Horrek guztiak, batez ere Metodologia-Ereduaren araberrako datu-baseak sortu eta hedatzeko balioko du, baina ez da ahaztu behar adituek bestelako idazlan

³ Sagarna, A. (2007): "Informazioaren eta komunikazioaren Teknologia eta Euskaltzaindiaren edukiak" in: *Euskera*. 52, 2007-1, 229-237.

testualak sortzeko gai direla, bai Egitasmoak eskatuko dielako, bai beren kabuz burututako hainbat lan ere Egitasmoan baliagarri izango delako (proiektuko lanak egitean ez ezik, beste gabe, ikerlanei merezikiko duten hedapena emateko ere).

Dena den, Ereduren araberrako lanetan bezala testu libreagoetan ere, Egitasmoak lehentasunez mugatu eta eraturako egitarau bati erantzun beharko dio. Horretarako premiazko irizpideak ere landu beharko dira: albisteen oinarritzotasuna, historian iker-alarrek izandako garrantzia, aditu prestatuen eskuertatutakoa, iker-itxaropenaren eta kostu ekonomikoaren arteko arrazoizko oreka, etab.

Iker-diziplinartekotasunak (eremu ezberdinetako lankidetzak, alegia) sinergia metagarriak eman beharko dizkio Etxeberri Egitasmoari. Lanaren ibil-lan beti begiratuz joan beharko dugun zerbaite da hori.

Proiektuaren nazioartekotasunak ez du hemen garrantzi kaskarra. Euskararen Historia hori erbesteko ikertzaile eta interesatuen eskuetan jartzeko, noski, baina zergatik ez, gure antzeko edo tamainako beste hizkuntzetan zer egin daitekeen erakusteko ere. Teknologia berriek ere horretarako erraztasun handiak emango dizkigute. Hedapen-asmo hau ez dugu utziko geroko baterako, eta ahal bada, datorren udaberritik aitzina Interneteko gure leihoa irekita izan beharko dugu, Euskaltzaindiko *web*-aren barnean.

Nazioartekotasun-xede hori ahazteke, iturrien izaeratik bertatik hasita aurkituko gara eleaniztasun baten aurrean: berriak jasotzeko hizkuntzak behar ditugu (grekoa, latina, gaztelania, frantsesa, gaskoia, etab.), esan bezala gure ikerbideetan hizkuntzekin topo egingo dugu, eta gure hedapen-ahaleginetan ere hizkuntzak aukeratu egin beharko dira.

Bide tarte luzea da guztia. Metodologia-Eredua eskuetan dugula eta bes-telako lanak abiarazten ditugun bitartean hilabete on batzuk bederen proba-epea izango dira guretzat.

1.3. Berehalako urratsak zeintzuk izango dira?

Bukatzeko, gogoan ditugun baina berehala denak batera abiarazi ezingo ditugun zeregin batzuk aipatuz bukatuko dut Etxeberri Egitasmoaren azalpen labur hau.

Esandako Bulegoaren eraketa azken aste hauetantxe ari gara burutzen. Era berean, bertako langile-taldea osatu dugu, eta guztion prestakuntza teknikoari ekingo diogu, zaindu nahi dugun Metodologia-Eredua berria baita eta norberaren aurreprestakuntzaren gain gaitasun berria eskatzen duena.

Jada gurekin ari da uztailaz gero Lionel Joly soziolinguista eta kodetze-buruaren ardura hartu duena; informatikaren premia azpimarratu dut, eta dagoeneko Iñaki Kareaga Euskaltzaindiko IKTeke kudeatzaileak gure informatikari Alazne Gorrotxategi-rekin dihardu Egitasmoko lehen lanetarako programak aukeratzen eta lanerako egokitzen. Testuak metadatuz hornitzeko ditugun markatzaileen berariazko prestakuntza izango da orain gure zeregina.

Unibertsitateetan Hizkuntzen Historia Sozialaz arduratu izan direnekin harremanetan gaude, eta berehala aztertuko dira asmo berriak. Era berean, han-hemen dabiltzala ere, iker-esparru honetan ezagunak ditugun ikertzaileen lankidetzak-moduak begiratzera goaz ondoko hilabeteetan.

Interneteko hedapen-arazoari aste gutxi barru heldu nahi diogu, eta jada informatikarien eskuetan ere badago gure eske hau, Euskaltzaindiak orokorki dituen asmoen barruan (Euskaltzaindiaren *web*-ean, alegia).

Argitalpenen artean (edozein euskarritan direla ere), lehentasuna emango zaio ikerkuntzarako tresnak sortzeari (artxiboetarako gidaliburuei edo lehen ikersaioei, adibidez), gure aditu ezagunen idazlanei irtenbide berriak eskaintzen dizkiegun bitartean.

Une egokia iristen denean, ikertzaile gazteentzako Mintegiak edo ikastaro laburrak eratu ahal izango dira, 2009ko gure egitarauan egongo da hori ere.

Aurkezpen orokor honen ondoren, Zalbide eta Gardner jaunek dute hitza, Egitasmoko Eredu metodologikoa eta *Thesaurus* bidezko kontsultalanabesa aurkezteko. (J.I.)

2. Metodologia-eredua

2.1. Lanerako dekalogoak

1. Han-hemen bildurik dauden datuetan oinarrituko da egitasmoa. Datuetan, ez hipotesietan edo dedukzioetan. Azken horiek ere beharko ditugu, eta ez hain gutxitan. Datuak izango dira, ordea, bere lehengai eta argudio-oinarri. Datu asko, fidagarritasunez ahalik eta kontrastatu eta egiaztatuenak, ondorio-ahalmenez ahalik eta sakon-zabalenak eta ikuspegi metodologikoz ahalik eta dibertsifikatuenak. Hori da Joanes Etxeberri egitasmoaren, EHS proiektuaren, abiaburu ezin utzizkoa.

2. Ateratzen ditugun ondorioak behin-behinekoak izango dira beti. Badakigu zientziaren aurrerabidea probisionaltasun horretan oinarritua dagoela,

eta beraz ezer gutxi ari garela esaten berririk. Hala da. Baina ez gara horretaz bakarrik hizketan ari. Joanes Etxeberri edo EHS proiektuak berariazko probisionaltasuna izango du berekin, ohikoaz gain. Argi azaltzea komeni da hori. Sarean zintzilik jartzen diren ondorio-azalpenak ere, horrexegatik eguneratu ahal eta eguneratu behar izango dira, gutxi asko, datu berririk agertu, eskuratu, analizatu, baloratu, aplikatu eta interpretatu ahala.

3. Ikersaio konkretuak izango ditu, beti, Joanes Etxeberri oinarri. Ikersaio konkretuak denbora aldetik, espazio fisiko-territorialaren aldetik eta espazio sozio-funtzionalaren aldetik. Metodologia-ereduaren muina: gelaxkak.

4. Ikersaio asko behar ditugu egin, panorama itxurazko bat eskuratzeko. Argazki bakarreko formularen kontrakoa aukeratu da EHS edo Joanes Etxeberri proiekturako. Ez goaz kolpean euskararen historia soziala eraikitzaera, hartarako oinarri sendo (beti probisional, baina gero eta sendoago) diren ebidentzia dokumentalak espazio fisiko, tenporal eta soziofuntzional jakinetan kokatzera baizik. Hots argazki puntual, ongi delimitatu asko (ahalik eta gehien, beti ere ahal denaren barnean) eskuratuz panorama zabal-aberatsagora bidean jarri nahi dugu proiektua.

5. Bertako hizkuntzak aztertuko dira, beti eta ezinbestean, euskararen kokaera zehatza egiteko. Oinarrizko eta ezin itzurizko puntua da hori. Donostian 1761ean zer hizkuntza egiten ziren jakin gabe, ezin ondo esplika liteke urte eta leku hartan euskarak zer leku okupatzen zuen garai hartako donostiarren bizitzan.

6. Une eta leku jakin batean hizkuntza batek edo gehiagok zer-nolako erabilera duten aztertuko dugu lehenik eta behin, bai plano kolektiboan (hori da ikerketaren asmo nagusia) eta bai, hartarako lagungarri izan litekeen neurrian, plano indibidualean. Hizkuntzaren beraren zenbait barne-ezaugarri ere kontuan hartu ahal izango da, erabilera horren adierazle edo zehaztapen-iturri den neurrian. Neurri horretan bakarrik, ordea. Hizkuntzaren erabileran, eza-gutzan eta horiei buruzko iritzi-jarreretan oinarritzen da Joanes Etxeberri. Al-diune historiko eta leku fisiko batean erabili izan den hizkuntzaren gibel-arraiak aztertzea ez da gure eginkizun.

7. Aparteko enfasia egingo da EHS proiektua hizkuntzak plano idatzian (literaturan, erlijio-liburuetan eta, bereziki, plano jaso-formalean) izan duen presentziara ez mugatzen. Ez hartara mugatzen eta ez, are, hartan zentratzen. Hitzezko jarduna da hizkuntza ororen oinarri. Hitzezko jarduna dokumentatu behar da, beraz, idatzizkoa baino lehen eta haren gaintetik. Ez dugu esaten idatzizkoa baztertu egin behar denik: idatzizkoaren datu-modu guztiak jaso-

tzea komeni da, eta ongi egituraturik interpretatu eta ondorio-txostenean txukun azaltzea. Ez daukagu idatzizko datuen kontrako prebentziorik txikiena: oso alderantziz, eskuratu ahal izango ditugun datuak soportean idatzian iritsiko zaizkigu ia beti, eta horrekin lan egin beharko dugu, jakina. Ez gara hori esaten ari, beste hau baizik: leku eta une jakin batean giza multzo jakin baten mintzajardunak zer gizarte-moldaera duen aztertu nahi dugula lehenik, eta horrek oso-oso kontuan izan behar duela hitzezko jarduna.

8. Aparteko garrantzia aitortuko zaie, horregatik, bertso-lanei, kantuei, atsotitzei eta antzeko dokumentuei; hitzezko jardunaren ispilu hurbileko diren neurrian, aparteko atentzioa dedikatuko zaie. Garai eta leku jakineko mintzajardun espontaneo, normalean giza artean konpartitu, hainbatetan L mailako jokabideen ispilu dira iturri horiek, eta aparteko begirunea zor zaie horregatik.

9. Argazki puntual, ongi delimitatu asko (ahalik eta gehien, beti ere ahal denaren barnean) egin nahi direla esan da. Ahal denaren muga dokumentazioak (esistitzen denak eta, bereziki, gaurkoz eskuratu eta erabili litekeenak) zehaztuko du batetik; ikersaio jakina aurrera ateratzeko gai den eta prest dagoen ikertaldeak (batez ere ikerburuak), denborak eta baliabide-aukerak (giza baliabideak, dirubideak, baliabide materialak) bestetik.

10. Ez goaz, oraingoz behintzat, aspaldi-aspaldiko epoketan saiatzera. Dokumentu urri dago garai haietaz oso, eta iturri haien fidagarritasuna eta zehaztasuna ere ez dira askotan nahi bezain handiak. XVI. mendetik honako epealdiak arakatuko ditugu, oraingoz, sarrien. Azken muga gisa 1980 jarri dugu. Handik honakorik ez da oraingoz, oro har, ikersaioetan aintzakotzat hartuko.

2.2. Metodologia-ereduaren muina: gelaxkak

Ez gara hutsetik abiatuko: aurrez prestatuturiko metodologia-eredu bat izango dugu abiaburu.

Metodologia-eredu horrek, oraingo bertsioan, lau dimentsio ditu: erabile-ra, hizkuntza-gaitasuna, hiztunen hizkeraren ezaugarriak eta, azkenik, iritziak, jarrerak eta jokabideak.

Metodologia-ereduak bost azterbide ditu: deskriptiboa, zinetikoa, dinamikoa, prospektiboa eta preskriptiboa.

Metodologiaren lau dimentsioak eta bost azterbideak honela konbinatzen dira, hogeitaz gelaxkako taula emanez.

1. taula: Dimentsioen eta azterbideen konbinazio-taula

		LAU DIMENTSIOAK			
		A Erabilera	B Hizkuntza-gaitasuna	C Hiztunen hizkeraren ezaugarriak	D Iritziak, jarrerak, jokabideak
B O S T A Z T E R B I D E A K	1 Deskriptiboa Aldiune eta leku jakineko egoera	1A Hizkuntzen erabilera Nork norekin zertaz zer hizkuntza darabilen	1B Hiztunen hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza batean eta bestean	1C Hiztunen hizkeraren ezaugarriak, hizkuntzen eta hiztunen gizarte-egoera argitzekoak	1D Han-hemengo hiztunen iritzi-jarrerak, -hizkuntzen izaeraz -hizkuntzen erabileraz -hiztunez
	2 Zinetikoa Egoeraren une eta leku jakineko bilakaera	2A Hizkuntzen erabileraren bilakaera	2B Hiztunen hizkuntza-gaitasunaren bilakaera	2C Hiztunen hizkeraren ezaugarri horietan agerituen bilakaera	2D Hizkuntzei eta hiztunei buruzko iritzi-jarreraren bilakaera
	3 Dinamikoa Bilakaera hori zergatik?	3A Zerk esplika dezake erabileraren bilakaera hori?	3B Zerk esplika dezake hizkuntza-gaitasunaren bilakaera hori ?	3C Zerk esplika dezake hizkuntza-ezaugarrien bilakaera hori?	3D Zerk esplika dezake iritzi-jarreraren bilakaera hori?
	4 Prospektiboa Zer gertatuko da azkenean?	4A Zer gertatuko da erabilerarekin?	4B Zer gertatuko da hizkuntza-gaitasunarekin?	4C Zer gertatuko da hizkuntza-ezaugarriekin?	4D Zer gertatuko da iritzi-jarrerarekin?
	5 Preskriptiboa Zer egin, helburua lortzeko?	5A Status Planning	5B Acquisition planning	5C Corpus Planning	5D Identity Planning

2.3. Lan-isuria

Laneko dekalogoia eta metodologia-eredua kontuan harturik, nolakoa izango da lan-isuria? Hona hemen, laburbildurik, eman behar diren urratsak:

- ikerburuarekin adostu ikersaioaren gaia;
- ikerburuak aztermaterialak (arakatu beharreko liburuak, artikulua, arxibategiko dokumentuak...) definitu;
- EHSk adierazitako aztermaterialak lanerako prestatu: jatorrizkoak eskuratu, testua eskaneatu, dokumentuari dagozkion datu bibliografikoak jasoz;
- EHSk aipuak aukeratu eta gelaxketan sailkatu; EHSk aipuak etiketatu;
- EHSk ikerburuari gelaxken eta, hala legokiokeen neurrian, azpigelaxken arabera sailkatutako materiala eskuratu;
- ikerburuak, eskuratu zaizkion datuetan eta bere ezagupenetan oinarriturik, ikersaioa idatzi. (M.Z.)

3. Ereduari euskarria ematen

3.1. Sarrera

Azken atal honen gaia aski estu markatuta datorkigu: Joseba Intxausti zuzendariak azaldu duen proiektuaren markoan Mikel Zalbide aholkulariak deskribatu digun metodologia-eredua nola gauzatuko dugu eguneroko praktikan? Lankide horiek jadanik praktika horren hainbat ezaugarri gainetik aipatu dizkigute: datu soziolinguistikoa, thesaurus, euskarri informatikoa. Zertan gauzatzen dira elementu horiek eta nola uztartzen?

Halako erronkaren aurrean lehenengo erreakzioa izan ohi da bestek halakorik egin al duen galdetzea, erreferentzia-puntuaren bila. Erantzuna gure kasuan ezezkia izan da. Badaude han-hemenka hainbat hizkuntzaren historia sozialak. Kasu guztiz egokia, hainbat parametroren arabera euskararen egoeratik aski hurbiltzat jo daitekeen galeserarena izan daiteke: bere historia sozialaz azken urteotan hainbat liburu mardul argitara eman dira (Jenkins (ed.) 1998, 2000, 2001; Jenkins & Williams (ed.) 2000; Jones 1998; Williams & Parry (ed.) 1999), baina ez daude oraingo proiektu honen jokabide-irizpideen arabera eginda. Galesko horretan ikerlari bakoitzak bere lana egin du, metodologia bateraturik adostu gabe eta datutegi baterabildurik izan gabe. Zentzu ho-

rretan EHSk proposatzen duen jokabidea berria da, itxura osoz: 2007an izandako lehen mintegian parte hartu zuten aditu atzerritarrek ezin izan ziguten nazioarteko beste adibide soziolinguistikorik proposatu. Ondorioz, bere garrantzia izango du EHSk lor ditzakeen aurrerapenen eta emaitzen berri era egokian nazioartekotzeak.

Utz dezagun, oraingoz, balizko emaitza horien zabalkundea albo batera eta jo dezagun arestian zerrendatutako hiru elementu horiek, datuak, thesaurusa eta euskarri informatikoa, argitzera.

3.2. *Datu soziolinguistikoak*

Linguistikari askoz errazagoa da ikerketarako lehengaiak definitzea: testuak hor daude eta filologoen eta hizkuntzalariek luzera desberdineko testu-zatiak hartzen dituzte aztergai. Gramatika-elementu jakin baten funtzionamendua aztertu nahi bada, adibidez, hura agertzen den testu-sorta biltzen da, gaur egun normalean euskarri informatikoan, eta testu horien gainean hainbat kontaketa- eta konparazio-eragiketa burutzen dira, interpretazio-lanari eutsi aurretik.

Soziolinguistikari, ordea, material erabilgarririk txikiena, EHSren hizkeran *aipua*, zer den ez da hain argi zehazten: aipua aukeratze soilean interpretazio-puntu bat ere egon daiteke. Aipuaren abiapuntuzko definizioa erraz eman dezakegu: euskararen historia soziala osatu ahal izateko metodologia-ereduaren araberrako informazioa ematen digun testu-zatirik txikiena, baina definizio horrek sor ditzakeen arazoak ere berehala ikusten ditugu: ez dago luzera estandarrik, ez dago ezinbestean soziolinguista desberdinen artean aukeraketari buruzko adostasunik eta ez, aukeraketa adostea lortzen badute ere, aukera horien esanahiari buruzko adostasunik. Azkenean, aipuei dagokienez jokabide pragmatiko zabalaz jokatu behar dugu: aurrez ikusten badugu gure lurraldeetako hizkuntzen historia soziala aztertzen ari den ikerlari bati aipu jakin bat erabilgarri gerta dakiokeela, huraxe bera jaso behar dugu.

3.3. *Thesaurusa*

Behin aipua zein den erabakiz gero, hura nola sailkatu erabaki behar dugu. Mikel Zalbidek hogeitaz gelaxken oinarritzko ereduaz azaldu berri dugu, baina hura baino sailkapen indartsuagoa, sakonagoa, eskaintzen du jadanik atontzen

ari den metodologia-eredu osoak. EHSk gai jakin bati buruz, demagun eliza katolikoak XIX. mendean euskararekiko zuen jokabideaz edo Markinan edo Saran mendeetan zehar izan diren hizkuntzen erabileraz, dituen aipu guztiak berreskuratu nahi baditu ikerlari batek, aipu guzti-guztiak egoki sailkatu, etiketatu edo markatu behar ditugu aldez aurretik, bilaketa-lanak errazteko.

Lehen urte-pare honetan aurrean dugun lan zailenatariko bat da hain zuzen ere etiketa- edo, informatikariet esango luketen bezala, metadatu-sorta egoki eta koherentea finkatzea.⁴ Begi-bistan daude sorta horrek bete behar dituen baldintza batzuk: edozein ikerlarik erabili nahi izan ditzakeen kategoriak islatu behar ditu; markatze-lana egiten duten langileek maneiatzeko modukoa izan behar du; azter-eremu osoa estali behar du; xehetasun-maila egokia behar du; etiketek islatzen dituzten kategoriak diskretoak izan behar dute; azkenik, aipuek elkarren artean dituzten hainbat lotura eta harreman islatu behar dira.

Zenbaitetan elkarren artean talka egiteko arriskua agertuko zaigu:

- Horrela, ikerlariet gero eta kontzeptualizazio-maila trinkoagora jo ohi dute, ikerketa-lanean aurrera ahala: eskolako eratzunari buruzko datuak bilatu ordez agian eskoletako sari- (eta zigor-)sistemari buruzko datuak bilatu nahi izango dituzte, horiek gizarte mailako sari-zigorrekin lotu ahal izateko. Ondorioz, hainbat gutxiengo etnikok ezagutu duten zigor konkretu baten azterketatik Fishmanek⁵ landutako kontzeptualizazio zabalagora pasatzen gara: sari negatibo puntualetik sistemara. Markatzaileek, ordea, lana azkar eta ugari egingo badute, erraz aplikatzeko kontzeptualizazio apaleko sistema beharko lukete.
- Bestetik, aipuetan ager daitezkeen gai soziolinguistiko guztiak islatu nahi dira, baina ezin da sistema xehegia montatu: etiketatzea ez da inoiz bukatuko bestela.
- Aipuen arteko loturei gagozkielarik, azkenik, garrantzitsua da, jakina, iturri bibliografikoa islatzea.

Etiketaz zerrendatzeko aukeratu den formatua thesaurus da: formatu horrek etiketa bera eta definizioa jasotzeaz gain, etiketen arteko harreman-sarea islatzen du, beste hainbat daturekin batera. Thesaurus idazteko badago nazioarteko estandar bat (ANSI/NISO 2005) eta ingelesezko hura, *mutatis mutandis*, EHSren thesaurus osatzeko gidari hartu da. Bistan dago, dena den,

⁴ Lantaldearen partaide izan denetik, Lionel Jolyk ere ahalegin horretan parte hartu du.

⁵ Ikus, adibidez, Fishman 1990: 188 eskolarekin lotutako sari-sistemaz.

thesaurusik egokiena ez dela lortuko hura hainbat dokumentutan, edo, zehatzago esanda, dokumentu horien aipuetan, aplikatu eta probatu arte.

EHSren thesaurusak oraindik bere itxura definitiboa lortu ez duela jakinda, ikus dezagun, hala ere, adibide bat, horren ideia egiteko. Har dezagun, beraz, *behetik gorako saioa* kontzeptua eta thesaurusak horretaz zer informazio jasotzen duen ikus:

2. taula: Thesaurusaren adibide bat

Ezaugarria	Edukia
Terminoa	behetik gorako saioa
Honen orde z erabili	bottom-up planning
Erabili	[Ez da EHSren thesaurus honetan erabiliko, baina hiztegi batuan berbideratzaile hau Euskaltzaindiak berak erabiltzen du.]
Erabilera-esparrua	Hizkuntza baten edo gehiagoren status-aldaketa gauzatzeko aginte-esparruan ez daudenek bultzatutako saioa. Adibidez: Arrasateko AEDren ahaleginak; Korrika; oro har, euskararen erabileraren aldeko eta kontrako GKEak. <i>Goitik beherako saioekin</i> kontrajarrita edo elkarlanean egon daitezke saio hauek.
Termino zabalagoa	saio-mota [termino zabalagoei zuhaitzean gora jarraikirik, Mikel Zalbideren metodologia-ereduaren 5A gelaxkan, status plangintzarenean, gaudela jakin ahal izango dugu.]
Termino estuagoa	[kasu honetan ez da thesaurusean termino estuagorik sartu. Halakorik asmatzea, ordea, ez litzateke kasu honetan zaila: agian, <i>banan banako saioa</i> eta <i>talde-saioa</i> bereizi beharra egon liteke. Oraingo z, dena den, ez da xehetasun gehiagoren beharrik ikusi.]
Lotutako terminoa	[Termino-aukeraketa egitean termino honekin nahas litekeen bestelako terminoak.]
Autoritatea	Kaplan & Baldauf (1997) [Terminoa zein idazlek sortu duen.]
Kodea	[Terminoak thesaurusean duen kasuan kasuko kodea.]
Noiz sortua	[Zein datatan sortu zen terminoa.]
Ontzat emana	[Proiektuko nork eman duen ontzat.]
Historia-oharra	[Terminoak proiektuan zehar izan duen ibilbidea: lehenagoko termino bat ordezkatzan duen; geroztik baztertu den...]

Lehenengo zortzi ezaugarriek, beraz, terminoaren mamiarekin dute zerikusirik; azken laurak, ordea, termino horren kudeaketa egokia ahalbidetzekoak dira.

3.4. Euskarri informatikoa

Nola uztartu behar dira, azkenik, soziolinguisten behar horiek, aipua zedarritzatzea eta aipuei etiketak eranstea hain zuzen ere, gaur egun ezinbestekotzat jotzen dugun euskarri informatikoarekin? Erantzuna tentuz osatzen ari gara: atal honetan izandako eztabaidak eta erabakitako jokabide nagusiak zerrendatuko ditugu.

3.4.1. Berariazko aplikazio edo soluzio estandarra?

Halako proiektuetan bide tradizionala berariazko aplikazio bat sortzea izan da, gaiaren berezitasun guztiak kontuan hartuko dituen. EHSko arduradunak eta arduradun-aholkulari informatikariak⁶ berehala konturatu ziren jokabide horrek ez ziela erabiltzaileen beharrei egoki erantzuten, hainbat arrazoiengatik:

- Halako sistema bat eraiki ahal izateko informatikariak erabiltzaileen eskakizun zehatzak hasieratik jakin behar dituzte; erabiltzaileok, ordea, ezin ditugu eskakizunak erabat zehaztu nolabaiteko praktika-epa bukatu arte.
- Datu-base handien kasuan datuen garraigarritasuna oso da kontuan hartzekoa. Ikus Bird & Stevens (2003) kontzeptu honen azterketa zabalera.⁷ Labur-labur azalduta, informatikaren garapen azkarrari esker, bai *hardware* bai *software*-ren aldetik, datuak gordetzeko sistema jakin

⁶ Ezin aipatu gabe utzi Iñaki Kareagaren eta Andoni Sagarnaren ekarpenak: ikus, besteren artean, Kareaga 2007, 2008; Sagarna 2008. Horren guztiaren garapen praktikoko ezinbestekoa izan da 2008ko erdialdetik aurrera Alazne Gorrotxategi EHSren informatikariaren laguntza. Azpimarratzekoa da noraino bat datozen Euskaltzaindiaren interes informatiko orokorrak zaindu behar dituzten lankideen eta EHS proiektuaren partaideen behar informatiko bereziak: bi aldeek EHSrentzat bilatzen den soluzioa Euskaltzaindiaren jokabide estandarretan egoki integraturik izatea nahi dute.

⁷ Beren azalpenak dokumentuazio linguistikoari begira idatzita badaude ere, horiek, behar denean egokiturik eta beste batzuetan bere hartan, egokitu gabe, dokumentazio soziolinguistikorako ere balio dute sarritan.

baten balioa azkar iraungitzen da eta hurrengoarekin bateraezin gertatzeko arriskua dago. Arazo hau larriagoa da berariaz eraikitako aplikazioetan. Estandar bihurtu diren aplikazioek, ordea, hurrengoarekin bateragarriak izateko aukera gehiago dute, oro har: beren garrantzia eta bolumenarengatik hurrengo dispositibo- eta software-belaunaldiak ezinbestean kontuan hartu ohi ditu.⁸

- Kostuetan, azkenik, badago aldea: berariazko aplikazioa sortzeak gastu handiagoa dakar berarekin soluzio estandarren batez baliatzeak baino.

Aski goiz erabaki zen, beraz, soluzio estandar batera jotzea, gaur egun aski ezagunak diren pdf luzapeneko fitxategiak erabiltzen dituen Adobe Acrobat Pro-ra hain zuzen ere. Dokumentuak gordetzeko nazioarteko estandar aski zabaldua bihurtzen ari den neurrian EHSri aukera egokia iruditu zaio.

3.4.2. Nola islatu aipua?

Lankideek aipu jakin bat datu soziolinguistiko baliagarriren bat duelako jaso nahi dutenean nola islatuko da hori informatikoki? Aski luze eztabaidatu ondoren eta irtenbide bat baino gehiago probatu ondoren aukeratutako irtenbidea honako hau izan da: aipu bakoitzeko pdf orri edo, aipuaren luzerak edo orrialdeen arteko banaketak hala eskatzen badu, orri-multzo bat sortzea, nahiz eta horretarako zenbaitetan pdf-orri berberaren kopia bat baino gehiago egin behar izan. Horrela, orrialde horrekin lotzen diren etiketa guztiak aipu bakar bati egokituko zaizkio. Bestetik, pdf-orri bakoitzean aipua nondik norakoa den argitzeko tresna informatikoak testua nabarmentzeko ematen dituen funtzioez baliatuko gara.

⁸ Hona hemen Bird & Stevens-ek (2003: 575) puntu honetaz diotena:

“6.2. Formatua.

(4) Irekitasuna.

(a) Gorde hizkuntza-dokumentazioa eta deskribapena irekiak diren formatuetan (hots, beren espezifikazioak argitara eman diren eta jabe baten menpekoak ez direnetan).

(b) Hornitzaile antizengandik lor daitezkeen software-tresnak sostengatzen dituzten formatuei lehentasuna eman.

(c) Tresna libreak dituzten formatuak lehenetsi, tresna komertzialak soilik dituztenen aurrean.

(d) Argitara emandako formatu jabedunei (adibidez, Adoberen Dokumentu Garraigarriaren Formatuari (PDF) eta MPEG-1 Entzutezko Geruza 3 (MP3)) eman lehentasuna, isilpeko formatu jabedunen aurrean (adibidez, Microsoft-en formatuak).”

3.4.3. Metadatuak zein formatutan gorde?

Azken eztabaidaleku nagusia etiketak gordetzeari dagokio. Behin-behineko izaera duen jokabidea azaltzen da ondoko lerrootan.

Bi mailatako metadatuak bereizi dira proiektu honetan: dokumentu (liburu, artikulu, hiruorriko...) jakin oso bati dagozkion datu bibliografikoak eta, bestetik, dokumentu horren aipuei dagozkien sailkapen soziolinguistikoenak, thesaurusean jasotakoak hain zuzen ere.

Bi maila horiek islatzeko bi jokabide desberdin aukeratu dira. Horrela, lehenengoetarako Dublin Core izeneko estandarren metadatuak erabili nahi dira; bigarrenetarako, ordea, arestian deskribatutako thesaurusean oinarritutako etiketa-sistema erabiliko da. Argi dezagun, jarraian, aukera bakoitzaren zergatia.

Datu bibliografikoez hitz egiten dugunean badago, gaur egun, estandar bat baino gehiago eskueran. Horien artean MARC21 Euskal Herrian aski ezaguna da eta estandar horretan oinarritzen da, hain zuzen ere, bertako hainbat liburutegitan erabiltzen den ABSYS katalogo-aplikazioa. Dena den, MARC21ek duen helburua eta EHSrena desberdinak dira: MARC21ek liburu fisikoaren xehetasun handiko katalogazio osoa ahalbidetu nahi du; EHSn ez da hainbeste egiteko asmorik, sarritan baliabide fisikoa ez baita EHSren esku egongo.

Bigarren aukera bat BibTex estandarra da, LaTeX estandar informatikoaren arabera bibliografiari begira egindako garapen espezializatua. Bibtex estandarra erabiltzen duten aplikazio aukera zabala dago gaur egun merkatuan, adibidez JabRef. MARC21en ondoan BibTex-en helburua apalagoa da, agian EHSren beharretarako apalegia: katalogatzeko baino gehiago, oinarritzeko erreferentzia bibliografiko hutsak egiteko balio du.


Azkenik, Dublin Core (ANSI/NISO 2007; ISO 2003) aukeratu da. Nahiz eta berez euskarri elektronikoko baliabideak etiketatzeko asmatu, EHSk dituen beharretarako, MARC21ek erantzuten dienak baino apalagoak eta BibTexek erantzuten dienak baino apur bat zabalagoak diren horietarako, egoki jo da; gainera, pdf-ren estandarrek Dublin Core-en arabera jasotako datuei euskarria berez eskaintzen die.

Bigarren kontua da zergatik berariazko etiketa-sistema sortu dugun, estandarren bat erabili ordez. Badaude datu linguistikoak etiketatzeko eta gordetzeko jokabide estandarizatuak, jakina: ikus, adibide gisa, Gippert *et al.*

(2006); eta interneten: Dokumentation Bedrohter Sprachen; ISLE MetaData Initiative; Open Language Archive Community. EHSk asmatutako sailkapen soziolinguistikoa, ordea, berria da; nazioartean oraindik, guk dakigula, antzekorik ez dago. Datu bibliografikoetan ez bezala, beraz, ezin izan dugu nazioarteko estandar batera jo.

Zorionez, pdf estandarrak badu halako etiketa-sistema propioa kontuan hartzeko modua, RDFren bidez. Hona EHSk nola jokatzeko asmoa duen⁹: EHSko soziolinguistek aipu jakin bati dagozkion metadatu soziolinguistikoak dokumentu batean XML hizkuntzan jasoko dituzte; etiketatze-akatsak gutxitzen laguntzeko horiek egiten dituzten aukerak DTD fitxategi baten edo, bestela esanda, XML eskema baten kontra balidatuko dira; balidatutako XML fitxategi horri XSLT bihurgailua aplikatuko zaio, XMLko datu horiek RDF hizkuntzan berridazteko; berridatzitako RDF datu horiek kasuan kasuko pdf fitxategian txertatuko dira; geroztikako zuzenketak errazteko, XML fitxategiak ere gordeko dira.

1. irudia: berriazko metadatuaren trataera



Baten batek agian galdetuko du zergatik hainbesteko konplikazioa, zergatik informatika-hizkuntza batean idatzi eta gero beste batera bihurtu. Eran-

⁹ Bird & Stevens-ek (2003: 575) proposatutakoari aski hurbildik jarraitzen dio, berririo ere, EHSk:

- (6) Etiketatzeta.
 - a. Etiketatzeta deskribatzailea lehenetsi, aurkezpeneko etiketatzearen aurrean.
 - b. DTD edo eskema laguntzaile duela, XML lehenetsi, etiketatze deskribatzaileko beste-lako sistemen aurrean.
 - c. XMLren DTD edo eskema ez bada lehendik artxiboratutako estandar bat, artxibora ezazu. Aldaera bakoitzari eman identifikatzaile esklusiboa.
 - d. ...

tzuna aski erraza da, ordea: XML hizkuntza hizkuntza naturaletik aski hurbil dago eta erraz ikasten da; RDF maneiatzeko berariazko prestakuntza behar da eta erabiltzeko orduan kontu handiagoz ibili behar da. Markatzaileei RDFn zuzenean idaztea eskatzea ez litzateke arrazoizko eskakizuna izango.

Azaldutakotik ikusten denez ezin da oraindik esan EHSk bere behar informatikoetarako behin betiko konponbide heldua topatu duenik, baina hasierako planteamendu sinplistetatik aski urrundu da EHS honez gero eta hainbat oinarri finkatu ditu. Hurrengo fase honetan behin-behineko soluzio hauekin lan egin behar du EHSk, gero eskarmentuaren arabera epe luzerako sistemaren ezaugarriak finkatu ahal izateko: epe luzeko jokabide informatiko horrek, gainera, EHSz kanpoko jendeak, berezilariek zein kaleko interesdunek, metatutako materialen artean lagundutako bilaketak egitea ahalbidetu beharko ditu, web-interfaze egoki baten bidez. (N.G.)

Bibliografia

Paperezko euskarrian dauden testuak

Bird, S. eta Simons, G., 2003, "Seven Dimensions of Portability for Language Documentation and Description", *Language*, 79. liburukia, 3: 557-582.

Fishman, J., 1990, "Eskolaren Mugak Hizkuntza Biziberritzeko saioan" in: *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*.

Gippert, J., Himmelmann, N. P. eta Mosel, U. (ed.), 2006, *Essentials of Language Documentation*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter. [Azalpen hau prestatzeko erabilitako gaztelaniazko bertsioa: Haviland, J.B. eta Flores, J. A. (koordinatzaileak) (2007) *Bases de la documentación lingüística*. México D. F.: Instituto Nacional de Lenguas Indígenas.]

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1990, *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua. 1. tomoa: ponentziak eta komunikazioak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Jenkins, G. H. (ed.), 1998, *Language and Community in the Nineteenth Century*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.

—, 2000, *The Welsh Language and its Social Domains, 1801-1911*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.

- , 2001, *The Welsh Language before the Industrial Revolution*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Jenkins, G. H. eta Williams, M. A. (ed.), 2000, *‘Let’s do our best for the ancient tongue’: The Welsh Language in the Twentieth Century*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Jones, D., 1998, *Statistical Evidence Relating to the Welsh Language*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Kaplan, R. B. eta Baldauf, R. B., 1997, *Language Planning: From Practice to Theory*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Kareaga, I., 2007, “EHS mintegia. Ondorioak: IKTen ikuspuntua.” Argitaratua gabea.
- , 2008, “Proiektu-plana EHS lantalderako azpiegitura informatikoa ezartzea.” Argitaratua gabea.
- Sagarna, A., 2008, “EHS egitasmoaren jakintza-basea.” Argitaratua gabea.
- Williams, M. A. eta Parry, G. (ed.), 1999, *The Welsh Language and the 1891 Census*. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.

Euskarri informatikoan dauden testuak

- ANSI/NISO, 2005, “Guidelines for the Construction, Format, and Management of Monolingual Controlled Vocabularies (Z39.19-2005).” <http://www.niso.org/standards/resources/Z39-19-2005.pdf>.
- , 2007, “The Dublin Core Metadata Element Set (Z39.85-2007).” <http://www.niso.org/standards/resources/Z39-85-2007.pdf>.
- ISO, 2003, “Information and documentation — The Dublin Core metadata element set (ISO TC 46/SC 4 N515/ ISO 15836:2003(E)).” <http://www.niso.org/international/SC4/n515.pdf>.
- Dokumentation Bedrohter Sprachen (DoBeS) <http://www.mpi.nl/DOBES>.
- ISLE MetaData Initiative (IMDI) <http://www.mpi.nl/IMDI/>.
- Open Language Archive Community (OLAC) <http://www.language-archives.org/>.